

Euskadiko ekintzailletza-jarduerak COVID-19aren krisiari eutsi dio

Euskal Ekintzailletzaren Behatokiak (EEB-OVE) Euskal Autonomia Erkidegoko Global Entrepreneurship Monitor 2020-2021 Txosten berriaren datuak aurkeztu ditu. Ekitaldian María Saiz EEB-OVEko presidentea hartu du parte, eta ikerketa horren ondorio nagusiak azaldu ditu. GEM txostenak Euskadiko ekintzailletza-ekosistemaren adierazle esanguratsuenak islatzen ditu, nazioarteko testuinguruan, ekintzaileen kolektiboari arazo ugari eman dizkion pandemia globalaren urtean.

Aurkezpenean parte hartu dute Jon Barrutia Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomia eta Enpresa Fakultateko dekanoa, Leyre Madariaga Eusko Jaurlaritzako Eraldaketa Digital eta Ekintzailletza zuzendariak eta Jabier Larrañaga Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurunea Saileko diputatuak.

2020-2021 Txosten berria ikertzaileen taldeak egin du, EEB-OVEko ekintzailletza-adituek, eta kideak Deustuko Unibertsitatekoak, Euskal Herriko Unibertsitatekoak eta Mondragon Unibertsitatekoak dira. Datuek ekintzailletza-jardura eta -kulturaren alde egiteko beharrezko erakunde-politiken diseinua orientatuko dute.

Ikerketa gure eskualdean 3.000 pertsona baino gehiagori egindako inkestan ateratako datuetan oinarritu da. Gainera, ekintzaileen ezaugarri nagusiak, Euskadiko ekintzailletza-ekosistemaren tendentzia globalak eta Euskadiko ekintzailletza-ehunaren proiektu berriak garatzeko jardura-sektoreak ere jasotzen dira, COVID-19aren krisiak eragindako ezohiko testuinguruan. Hori guztia nazioarteko alderaketaren ikuspegiarekin, zeinak aukera ematen duen hobeto ikusteko EAEko ekintzailletza-ingurunearen ahulguneak eta indarguneak.

Hau da zure hedabidearen laburpen exekutiboa

Ekintzailletza-jarduerak COVID-19aren krisiari eutsi dio Euskal Autonomia Erkidegoan

Txostenaren datuen arabera, hiru ideia nagusik definitzen dute ekintzailletza-segmentu estrategikoaren ekonomia- eta enpresa-egoera, eta askotan hori da berrikuntza eta enpleguaren eragilea, bereziki egungoa bezalako osasun-krisiaren unean:

1. Euskadiko ekintzailletzak COVID-19aren krisiari eutsi dio
2. Ziurgabetasunak baldintzatu du ekiteko aukeren pertzepzioa
3. Porrotarekiko beldurrak gora egin du egungoa bezalako ziurgabetasun-egoeran

Datu esanguratsuak

Balioak, ekintzailletza-jarrerak eta ekintzailletza-jardura EAEn

- Ekintzailletza-jardueraren mailak aurre egin dio COVID-19aren krisiari gure eskualdean, eta aurrera egin du aurreko ekitaldiari begira. Euskadiko biztanleen % 5,25ek 3,5 urtetik beherako enpresa bat dute.
- Egungo ziurgabetasunaren ondorioz, Euskadiko biztanleek ekiteko aukera gutxiago ikusten dituzte orain, eta ehuneko horrek behera egin zuen 2020-2021 aldian (% 16,5), aurretik % 40koa baitzen.
- Halaber, porrotarekiko beldurrak gora egin du, munduko pandemiak markatutako ziurgabetasunaren ondorioz. Euskadiko biztanleen % 65ek beldur hori dute.

- Ekiteko hautemandako gaitasun-maila mantendu da (ezagutzak eta trebetasunak), eta bi ezaugarri horiek beharrezkoak dira edozein negoziotan arrakasta izateko.
- Ziurgabetasuna eta segurtasunik eza batzen baditugu, herritarrek EAEn hurrengo hiru urteetan enpresa berriak sortzeko duten asmoak behera egin du pandemiaren ondorioz.
- Enpresa finkatuak dituzten Euskadiko biztanleen ehunekoak ere behera egin du bi puntutan, baita barneko ekintzailletza-jarduerak ere (barneko ekintzaileak enpresa baten barruan negozio-ildo berri bat jorratzen duten profesionalak dira).

Euskadiko ekintzailearen profila eta motibazioak

- Euskadin ekiteko batez besteko adinak 40 urtekoa izaten jarraitzen du, bai gizonentzat eta bai emakumeentzat.
- Enpresak sortzerakoan, genero-aldeak oso txikiak dira: gizonak ekintzaileen % 52,4 ordezkatzen dute, eta emakumeek % 46,6.
- Euskadiko ekintzaileen % 60 baino gehiagok goi-mailako eta unibertsitate osteko hezkuntza-maila dute, eta errenta-maila heren bat handiagoa da.
- Hurrengo 3 urteetan EAEn ekin nahi duten pertsonen profilak ezaugarri hauek ditu: Batez besteko adina 36 urtekoa; % 51,7 gizonak eta % 48,3 emakumeak; % 60 goi-mailako eta unibertsitate osteko hezkuntzarekin; soilik % 36,3k dituzte hasiera errenta erdi-handiak.
- Enpresa finkatua duten pertsonen batez besteko adina 51 urtekoa da. Emakumezko enpresari finkatuek (% 52) gizonak gainditu dituzte lehen aldiz (% 48).
- Euskadiko ekintzaileen kolektiboaren motibazio nagusia “bizimodua ateratzea” da, bestelako enplegurik ez dutelako. Aurreko urteari begira aldatu egin da hori, motibazio nagusia aberastasuna edo errenta oso handia eskuratzea baitzen.

Ekintzailletza-prozesuaren finantzaketa EAEn

- Behera egin du ekiteko erabilitako edo eskatutako finantza-baliabideen mailak aurreko urteari begira. 15.000 eurokoa da orain.
- Kapital sustatzailea edo aurrezki pertsonalek ohiko baliabidea izaten jarraitzen dute. Ekintzaileen % 56k soilik aukera hori erabili dute.
- Lau proiektutik batek bankuko finantzaketa lortu du, eta lortu ez dutenek euren finantza-beharren % 64 estaltzen dute. Proiektua denboran finkatzeak bankuko finantzaketa lortzea errazten du.
- EAEko inbertitzaile informalen tasa, % 3,4, ekintzailletza-jarduerarena baino txikiagoa da (% 5,2). Inbertitzen dutenen artean inbertsio profesionalizatua/*business angels* segmentuaren gorakada nabarmena hauteman da (% 8,2).

Jarduera ekonomikoa, enplegua, berrikuntza eta nazioartekotzea

- Behera egin du (% 65,7tik % 56,6ra) oinarrizko zerbitzuak eskaintzen dituzten negozioen pisu erlatiboak, eta protagonismo handiagoa hartu dute ezagutza, industria, energia eta saneamenduko zerbitzu intentsiboak.
- Behera egin du nabarmen enplegua sortzeko ekintzailletza-jarduerak, eta % 0ra murriztu da eragin-enpleguaren sorrera, 20 langile baino gehiagotan.
- Aitzitik, enpresaburu finkatuek sortutako lanpostuen batez besteko kopurua 12,7tik 16,3ra igo da 2019tik 2020ra bitarteko aldian.
- Ekintzaileen kolektiboak etorkizunean enplegua sortzeko dituen aurreikuspenek ere behera egin dute.

- Gora egin du produktuan berrikuntza-mailaren bat duten proiektuen proportzioak (% 32,8), eta finkatuetan baino nabarmen handiagoa izaten jarraitzen du (% 16,7). Hala ere, behera egin du berrikuntza-maila erradikalenen pisuak (produktua, prozesuak eta erabilitako teknologiak).
- Behera egin du Euskadiko ekintzaitzaren nazioarteko orientazioak, baina kasu honetan jarraipen finkatuaren datua baino handiagoa da.

EAEk ekiteko baldintzak ingurunean. Datuak eta gomendioak

Ingurune ekintzailearen baldintzek, euskal gizartearen aldaketa ekonomiko, politiko eta sozialek moldatutakoek, funtsezko eginkizuna betetzen dute proiektu ekintzaile berrien garapenean, batez ere krisialdian, hala nola COVID-19aren pandemian. Testuinguru horretan, GEM proiektuak urtero elkarrizketatzen diren adituen iritzia jasotzen du, Euskadiko ekintzaitza-ekosistema osatzen duten baldintza formal eta informalei dagokienez.

Zehazki, 2020. urterako, EAEko adituek positiboki baloratzen dituzte gobernu-politikak, merkataritza- eta lanbide-azpiegituretarako sarbidea eta gobernu-programak. Gobernu-politiken eta -programaren balorazioa oso aldekoa izan da hainbat urtez, eta horrek euskal erakundeek ekintzaitza-ingurune mesedegarriagoa eraikitzeko egindako ahaleginak islatzen ditu. Enpresa berriei laguntzeko azpiegiturek ondo baloratuta daude, baina COVID-19aren krisiari aurre egiteko inkubazio- eta aurreinkubazio-zerbitzuak oso garrantzitsuak izango dira.

Ekintzaitzarako oztopo nagusiak, adituek nabarmenduta, finantza-laguntzarik eza, gizarte- eta kultura-arauak, ekintzaitzarako gaitasuna, hezkuntza eta prestakuntza dira. Proiektu ekintzaileei finantza-laguntza ematea, batez ere lehen faseetan, eta ekintzaitza-, inbertsio- eta arrisku-kultura indartzea oso garrantzitsua da ingurunea sendotzeko, proiektu berriak sortu eta garatzeko.

Gomendioei dagokienez, EAEko adituek gomendatzen dute ekintzaitza-gaitasuna indartzea, gizarte- eta kultura-arauak hobetzea, ekintzaitzaren arloko hezkuntza eta prestakuntza indartzea eta enpresa berrientzako finantza-laguntza hobetzea.

Ekintzaitza-ekosistema indartu eta hedatzeko joera argia, ekintzaitza-ingurunearen baldintzak egonkorrak direlarik aurreko urteekin alderatuta.

Laburbilduz, EAEk ekintzaitza gehien bultzatzen duten baldintzak hauek dira: azpiegitura fisikoetarako eta zerbitzuetarako sarbidea. Oro har, gobernu-programak eta lanbide- eta merkataritza-azpiegituretarako sarbidea.

Ekintzaitza gutxien ahalbidetzen duten baldintzak hauek dira: ekintzaitza-hezkuntzaren falta Lehen eta Bigarren Hezkuntzan eta barne-merkatuaren dinamika. Giza kapitalean jarri behar da arreta, eta enpresa-dinamismo handiagoa sortu. EAEko ekintzaitza-ingurunearen balorazioen batezbestekoa Espainiako eskualdeko batezbestekoa eta Europar Batasunekoak baino handiagoa da 3 puntutan.

Aurkezpen-ekitaldia Antonio Beristain Auditorioan egin da, Carlos Santamaria Zentroan, UPV/EHU (Elhuyar Plaza 2, 20018 Donostia, Gipuzkoa).

GEM EAE 2020-2021 aurkezpenak erakunde publikoen bermea du, eta horiek prentsaurrekoan egon dira.

Donostian, 2021eko uztailaren 8an

EEB-OVEren INGURUAN

EEB-OVE Observatorio Vasco del Emprendimiento- Euskadiko Ekintzaitzaren Behatokia Euskal Autonomia Erkidegoko ekintzaitzaren datuak neurtu eta interpretatzeko tresna da, ekintzaileei, enpresei eta erakundeei erabakiak hartzen laguntzeko. EEB-OVEk EAEko ekosisteman ekintzaitza-fenomenoa neurtzeko erreferente gisa finkatzeko helburua du.

Ikerketa-taldeak eskerrak eman dizkie SPRI Enpresen Garapenerako Euskal Agentziari; Eusko Jaurlaritzari – Ekonoamiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena; Bizkaiko Foru Aldundiko Sustatzeko Sailari; Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Sailari; Arabako Foru Aldundiko Ekonomia Garapena, Berrikuntza eta Demografia Erronka Sailari; FESIDeri eta Emilio Soldevilla Fundazioari. Esker bereziak eman dizkie, berriro ere, SPRI Enpresen Garapenerako Euskal Agentziari, GEM EAE proiektuko erakunde bazkidea baita, eta baita Eusko Jaurlaritzako Ekintzaitza eta Eraldaketa Digitalaren Zuzendaritzari ere.

- **INFORMAZIO GUZTIA GURE WEBGUNEAN DAGO ESKURAGARRI: <https://eeb-ove.eus/>**
- **ELKARRIZKETAK EDO ERREPORTAJEAK HITZARTZEKO, JARRI HARREMANETAN HAUEKIN: mariasaiz@eeb-ove.eus edo info@eeb-ove.eus**